

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gordexolako Udala**

**Molinar plaza 5eko udal jabegoko eraikina zaharberritzeko obraren II fasea kontratatzeako espedientea dela eta, alkatetzari Osoko Bilkuraren zenbait eskumen eskuordetzea.**

Udalbatzak 2017ko uztailaren 27ko aparteko osoko bikuran Molinar plaza 5eko udal jabegoko eraikina zaharberritzeko obraren II. fasea kontratatzeako espedientea dela eta, Osoko Bilkuraren honako eskumen hauek alkatetzari eskuordetzea erabaki zuen:

«*Bostgarrena*: Kontratazio espediente hau dela eta, alkatetzari honako eskumenak eskuordetzea:

- Pleguan aurreikusitakoa aplikatu ondoren, aurkeztutako eskaintza/k gehiegizkoak edo anormala/ak dela/direla antzematen baldin bada, lizitatzailari edo lizitatzailari entzutea eta dagozkion justifikazioak aurkezteko eskatzea.
- Lizitatzailari aurkeztutako proposamenak sailkatzea eta eskaintzarik abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzailari dokumentazioa eskatzea.
- Kontratua esleitzea.

Erabaki honen bitartez emandako eskuordetzea, prozeduraren izapidetzeari loturiko ahalmen guztiak barne hartzen ditu, baita hirugarrenei ukitzen dizkien administrazio egintzak ebazteko ahalmena ere.

Erabaki hau indarrean izango da hartzen den egunaren biharamunetik hasita. Nolanahi ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.»

Argitara ematen da guztiek jakin dezaten.

Gordexolan, 2017ko abuztuaren 7an.—Alkatea, Ángela María Eguía Liñero